PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ZINEUSKADI ELKARTEAREN URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.1. Kontratuaren xedea 2025, 2026 eta 2027ko ekitaldietako ZINEUSKADI ELKARTEAREN urteko kontuen auditoretza-zerbitzuak ematea da, PTAren I. ERANSKINAREN arabera[1].

1.2. **Banaketa loteen arabera:** Kontratuaren xedea ez da lotetan banatzen, kontratuaren xedean jasotako prestazioak modu independentean egiteak zaildu egiten duelako kontratua behar bezala egikaritzea, ikuspegi teknikotik.

1.3. **CPV:** Dagokion CPV kodeari buruzko informazioa karatulako 1.1 apartatuan aurki daiteke.

2. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

2.1.- Kontratu hau kontratu pribatu gisa kalifikatzen da. Kontratua arautuko da Agiri honetan, Karatulan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta esleipen-proposamenean ezarritakoaren arabera, horiek kontratu-izaera baitute

Bertan jasotzen ez denari dagokionez, honako hauen arabera arautuko da:

a) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).
b) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
c) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsitakoa.
d) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea ezartzekoa, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.
e) 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
f) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
g) Europar Batasunaren esparruan, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegokoan kontratazioa arautzen duen eta aplikagarri zaion beste edozein xedapen.

SPKLn ezarritakoaren aurka ez badaude. Osagarri gisa, aplikatzekoak diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala badagokio, zuzenbide pribatukoak.

2.2.- Alderdiek berariaz bete beharko dute kontratu-agirietan ezarritakoa. Agiri horietan ezarritakoa ez ezagutzeak ez du kontratista betebehar horretatik salbuesten, eta eskaintza aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula guztiak.

3. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA

[1] Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2025eko ekainaren 10ean egindako bileran hartutako erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen kontu-auditoretzaren inguruan.

Erakunde hauetan, honako gai hauekin lotuta indarrean dauden betebeharrei eta xedapenei buruzko informazioa lor daiteke:

3.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.

3.2. - Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko Foru Ogasunak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

3.3. - Ingurumenaren babesa: IHOBE SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

3.4.- Enplegua, lan-arriskuen prebentzioa eta lan-baldintzak: Lan eta Enplegu arloan eskumena duen Saileko dagokion zuzendaritza eta OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoa.

3.5.- Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko espezifiko bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa.

3.6.- Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskadiko Agentzia.

3.7. - Lehiaren defentsa: Lehiaren Euskal Agintaritza.

4. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

4.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua karatulako 4.1 apartatuan ageri da, eta klausula horretan ezarritako urtekoetan banatzen da.

4.2.- Balio zenbatetsia karatulako 4.2 apartatuan ageri da.

4.3.- Kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko kreditu nahikoa dago.

4.4.- Prezioa oroharreko prezioan zehazten den kontratuen kasuan, kontratuaren prezioa honen esleipenetik ateratzen dena izango da —partida independente gisa BEZa sartuko du—, eta, hala badagokio, urte anitzeko banaketatik ateratzen dena.

4.5.- Baztertu egingo dira lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen duten eskaintzak.

4.6.- Kontratuaren prezioan sartuko dira kontratua gauzatzeko behar diren kostu guztiak, besteak beste, adibide gisa eta ez mugatzaile gisa, honako hauek:

- Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak. Ez da a posteriori onartuko azken prezioan aldez aurretik behatu behar ziren kontzeptuen araberako fakturazioa.
- Kontratua egikaritzeari atxikitako edozein kontzeptu eta kontratua gauzatzeko enplegatutako langileen gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako orduetako lanak, bajagatik edo gaixotasunagatik egindako ordezkapenak, istripu indibidualen aseguruak, etab.), baita zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio eta joan-etorrien gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.
- Kontratistak kontratua egikaritzeko behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.
- Erakunde kontratatzaileak zehazten dituen lan- edo informazio-bilera guztietara joatea, kontratua behar bezala garatu eta bete ahal izateko.

- Administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoen 4. klausulan zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

5. KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA.

Kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, epe partzialak karatulako 10.1 apartatuan adierazitakoak dira.

Kontratua egikaritzeko epea adierazten den egunean hasiko da zenbatzen, edo kontratua formalizatu eta hurrengo egunean.

Kontratua ezin izango da luzatu karatulako 10.2 apartatuaren arabera.

6. BERMEAK

6.1.- SPKLren 106.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da bidezkoa behin-behineko bermerik eratzea.

6.2.- Era berean, kontratuaren inguruabarrak kontuan hartuta, behin betiko bermeari dagokionez, kontratazio-organoak behin betiko bermea eratzeko betebeharretik salbuetsiko du esleipenduna, SPKLren 107. artikuluaren arabera.

7. KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK

Kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilerako sarbidea esteka honen bidez egingo da: https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/

Kontratatzailearen profilean datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

- Lizitazio-iragarkia.
- Espedientea onartzeko ebazpena.
- AKPA, PTA eta dokumentazio osagarria.
- Kontratuaren xede zehatza, iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.
- Kontratazioa egiteko beharra, kontratazioaren egokitasuna eta efizientzia eta kontratuaren xedearekin duen lotura zuzena, argia eta proportzionala justifikatzeko memoria.
- Baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena.
- Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio-organoak sinatua.
- Kontratazio-mahaiaren osaera eta bertako kideen kargua.
- Kontratua argitaratu duten bitartekoak eta argitalpen horietara estekak.
- Esleipen-prozeduran parte hartu duten lizitatzaileen kopurua eta nortasuna
- Kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuren datak eta lekuak, eta, hala badagokio, haien aldaketak; baita, hala badagokio, horiek ikusteko erabiliko den webgunea ere.
- Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda eta, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak.
- Kontratazio-mahaiaren aktak.
- Eskaintza bakoitzaren balio-judizioaren bidez kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideen balorazio-txostena.
- Hala badagokio, anormaltasun-presuntzioan sartutako eskaintzei buruzko txostena (SPKLren 149.4 artikulua).
- Eskaintzei esleitutako puntuazioak, horiek aktetan jasotzen ez direnean.
- Kontratua esleitzeko ebazpena.
- Esleipendunaren nortasuna.

- Esleipenaren zenbatekoa, BEZa barne.
- Kontratua formalizatzeko iragarkia eta kontratu-agiria.
- Hala badagokio, esleipen-prozedura ez esleitzea, etetea edo bertan behera uztea erabakitzen duen kontratazio-organoaren ebazpena.
- Hala badagokio, esleipen-prozedura baliogabetzat jotzen duen ebazpena.
- Kontratua aldatzeko iragarkia(k), kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua aldatzea erabakitzen duena, haren justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, hala badagokio, onartu aurretik eskatutako txosten guztiak.
- Kontratua eteteko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena.

Interesdunek kontsultak eta dokumentazio osagarriaren edo informazio osagarriaren eskaerak egin ditzakete karatulako 6.2. apartatuan agertzen diren bitartekoen bidez.

II. LIZITAZIOA

8. ESLEIPEN-PROZEDURA

8.1. Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, hainbat irizpideren bitartez, karatulako 9. apartatuan zehaztutakoaren arabera, aplikatu beharreko SPKLko artikuluak kontuan hartuz.

8.2. Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak karatulako 9. apartatuan aurreikusitakoak izango dira.

9. ENPRESABURUAK KONTRATATZEKO DUEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

9.1.- ZINEUSKADIrekin kontratuak egin ahal izango dituzte —karatularen 7. apartatuan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko espainiar edo atzerritarrez gain— SPKLren 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek; halaber, SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan hurrenez hurren xedatutakoa betetzen duten Batasuneko operadore ekonomikoek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako operadore ekonomikoek ere kontratatu ahal izango dituzte.

Era berean, pertsona fisikoek eta juridikoek ere izango dute kontratua eurei esleitzeko aukera, baldin eta enpresaburuen aldi baterako elkarte gisa aurkezten badira (aurrerantzean ABEE).

9.3.- Gaitasunari, lanbide-gaikuntzari edo enpresa-gaikuntzari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua burutzen den bitartean iraun beharko dute.

Kontratazio-mahaiak prozeduraren edozein unetan ziurtagiri eta egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die enpresa lizitatzaileei, kontratua esleitu aurretik behar bezala funtzionatzen ari direla bermatzeko beharrezkoa denean. Halaber, aurkeztutako ziurtagiriei eta dokumentuei buruzko argibideak eskatu ahal izango zaizkie, edo beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu; hori bost (5) egun balioduneko epean egin beharko dute, dagokion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

10. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoa betez, prozedura honetan biltzen diren datuak fitxategi elektroniko batean sartuko dira, kontratu hau behar bezala esleitu eta gauzatzen dela bermatzeko. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei lagako, aipatutako araudian xedatutakoa izan ezik. Lizitatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta legean jasotako gainerakoak baliatu ahal izango dituzte.

Proposamenak Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoko plataformaren bidez (http://www.contratacion.euskadi.eus) aurkeztuko dira, lizitazio-iragarkian adierazitako epean.

Eskaintza aurkezteko epearen barruan jaso dela ulertuko da, baldin eta eskualdaketa epearen barruan hasten bada eta behar bezala amaitzen bada. Horretarako, eskaintza epe barruan transmititzen hasi dela ulertuko da, baldin eta lizitatzailearen ordezkariak *"Sinatu eta bidali eskaintza"* botoia ezarritako epearen barruan sakatzen badu, eta transmisioa arrakastaz amaitzen dela ulertuko da aurkeztutako eskaintza osatzen duten dokumentuak erregistro elektronikoan sartzen direnean.

Betekizunei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri: https://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua: 945 016 298

Dokumentuak izendatzeko, agiri honen 11. klausulan artxibo elektroniko BAKARREAN sartu beharreko dokumentu-eduki gisa adierazitako apartatuak hartuko dira kontuan. Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, lizitazio publikoa egin arte isilpekoak izatea bermatzeko baliabideak jarriko dira.

Enpresaburu bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak edo hobekuntzak onartzeko aukerari kalterik egin gabe, hala aurreikusita dagoenean. Ezin izango du, halaber, beste enpresaburu batzuekin aldi baterako elkartean inongo proposamenik izenpetu, baldin eta indibidualki aurkeztu badu berea, edo ezin izango du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan egon. Debeku horiek urratuz gero, ez dira onartuko berak izenpetutako proposamen guztiak.

Eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela agiri honetako klausulak eta gainerako kontratu-dokumentuak, inolako erreserbarik eta salbuespenik gabe, eta baimena ematen diela kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari kontratua esleitzeko prozeduraren edozein unetan erregistroetan jasotako datuak kontsultatzeko. Operadore ekonomikoak ez daude behartuta erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztera.

10.1.- Hizkuntza

Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu beharko dira.

11. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Proposamenak **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo haren ordezkari den pertsonak.
Artxibo elektronikoek honako elementu hauek jasoko dituzte:

A gutun-azala:

- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)
  EKABen IV. zatiari dagokionez, operadore ekonomikoa a atala betetzera mugatuko da.[2]
- II.0. ERANSKINA, datu pertsonalei buruzkoa.
- Baliabideak II.2 ERANSKINEKO ereduaren arabera esleitzeko konpromisoa.
- Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzial izendatzea, II.3 ERANSKINAREN arabera.
- II.4 ERANSKINAREN arabera formalki aldi baterako enpresa-elkarte bihurtzeko konpromisoa, hala behar izanez gero
- Operadore ekonomikoak kontratuaren xede den jarduera egikaritzen duten langileekiko hartzen dituen konpromisoei buruzko adierazpena, II.5. ERANSKINAREN arabera.

Comentado [JM1]: Tenemos que decidirlo

[2] https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/es/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso34029/es_doc/adjuntos/deuc1.pdf

- Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluari jarraiki, enpresa-talde bereko hainbat operadore ekonomikok eskaintza aurkezten badute, II.6 ERANSKINA bete beharko dute.

B gutun-azala:
- Memoria teknikoa, proposatutako zerbitzuaren xedea eta irismena deskribatuz, lanak egiteko erabilitako metodologia zehaztuz, plangintza zehaztuz, fase bakoitzaren egutegia emanez, eta erakundearentzat garrantzitsuenak diren alderdiak identifikatuz, izaera juridikoa kontuan hartuta.

C gutun-azala:
- Proposamen ekonomikoa eta formulak aplikatuz kuantifika daitezkeen gainerako irizpideak. (Eskaintza lizitatzaileak edo hau ordezkatzen duen pertsonak sinatu beharko du, eta AKPAren III. eranskineko ereduaren arabera idatzi behar da)

12. ESKAINTZA ANORMALKI BAXUAK

Honako kasu hauetan dauden eskaintzak hartuko dira neurriz kanpokotzat edo ausarkeriazkotzat: Prezioa / proposamen ekonomikoa **EZ denean balorazio-irizpide bakarra** —kasu honetan gertatzen den bezala—:

1. Eskainitako prezioa lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa denean, aurrekontuan ezarritakoaren % 20 baino gehiago.

Nolanahi ere, Kontratazio Organoak baztertu egingo ditu eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badu oso baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan Estatuan edo nazioartean aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen ez dituztelako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

13. PROPOSAMENEN KONFIDENTZIALTASUNA

13.1.- Konfidentzialtasuna

Lizitatzaileren batek uste badu aurkeztu duen dokumenturen bat konfidentzialtzat jo behar dela, beren-beregi adierazi beharko du hori –II.3 ERANSKINA betez— eta argi eta garbi agerrarazi, gaininprimatuta edo orriaren bazterrean, konfidentzialtzat jo den dokumentuan bertan.

ERANSKIN horretan, konfidentzialtzat jotzen diren informazio eta alderdiak azaltzeaz gain, konfidentzialtasun hori zein arrazoi zehatzengatik gertatzen den azaldu beharko dute.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere izango konfidentziala.

Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren, ezingo da isilpekotzat jo aurkezten diren unean isilpekotzat jo ez diren datuak, salbu eta esleipen-prozeduran aurkezten diren agiriak badira, eta isilpekotzat jo ahal izango dira.

13.2.- Dokumentazioa egiaztatzea

Adjudikazio-prozeduraren barruan nahiz kontratua adjudikatu eta formalizatu ostean, aurkeztutako dokumentuak benetakoak direla egiaztatu ahal izango du ahalorde esleitzaileak. Datuak faltsutzea kontratuaren deuseztasun-kausa izan daiteke. Arrazoi horregatik kontratuaren deuseztasun-deklarazioa eginez gero, operadore ekonomikoari leporatu ahal izango zaio ez-betetzea, eta eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio ahalorde esleitzaileari.

13.3.- Jakinarazpenak eta komunikazioak

a) Adjudikazio-erabakia eta SPKLren 44.2 b) artikuluan definitutako izapidetze-egintzak jakinarazi beharko dira. Honako hauek izango dira komunikazioak: argibide-eskariak,

akatsak edo omisioak konpontzeko errekerimenduak, baldintza-agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan sartzen ez diren bestelako izapide-egintzak.

b) Lizitazio elektronikoaren sistema erabiliko da jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriaren lehenengo apartatuaren arabera, jakinarazpenak horretarako prestatutako helbide elektronikoa erabiliz edo, bestela, agerraldi elektronikoaren bidez egin ahalko dira. Jakinarazpenetik kontatzen diren epeak jakinarazpena edo jakinarazpenaren abisua igorri den egunetik hasiko dira kontatzen, baldin eta agerraldi elektronikoaren bidezko jakinarazpena bada, betiere jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Hala ez bada, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontatuko dira.

14. AURKEZTEKO EPEA

Hamabost (15) egun natural, kontratuaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

15. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA AZTERTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak daudela ikusten bada, kontratazio-organoak posta elektronikoz edo beste edozein bide erabiliz jakinaraziko die interesdunei, jakinarazpena jaso duela, noiz jaso den eta jakinarazpenaren edukia jasota gera dadin; kasu horretan, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaie lizitatzaileei akats horiek zuzentzeko, edo argibide edo agiri osagarriak aurkezteko.

Dokumentazioa kalifikatu eta, hala badagokio, adierazitako jarduketak egin ondoren, kontratazio-organoak zehaztuko du zein enpresak betetzen dituzten karatulako 7. apartatuan ezarritako gaitasun- eta kaudimen-irizpideak, eta berariaz adieraziko ditu lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta horiek baztertzeko arrazoiak.

15.2.- Kontratazio-mahaiak baldintza hauek betetzen dituzten eskaintza hauek atzera botatzea erabakiko du:

a) Eskaintza arriskuan jartzen duten bestelako agiriak biltzen dituzten eskaintzak.
b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten eta edukia ziurtasun osoz ezagutzea eragozten duten eskaintzak.
c) Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozen eskaintzak.
d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehienekoak diren unitateko prezioak gainditzen dituzten eskaintzak.
e) Agirian jasotako eskaintza ekonomikoaren eredua nabarmen aldatzen duten eskaintzak.
f) Zenbatekoari dagokionez akats nabarmena dakarten eskaintzak.
g) Bideraezin bihurtzen duten errakuntzak edo funsgabetasunak dituzten eskaintzak, eta lizitatzaileak inguruabar hori onartzen duenean.
h) AKPAn edo PTAn ezarritako baldintzak edo betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak.
a) Birusak izateagatik irakurtzea edo edukia eskuratzea eragozten duten eskaintzak.

15.3. – Kontratazio-mahaiak, esleipen-proposamena egin aurreko edozein unetan, eskaintza ulertzeko beharrezkoak diren **argibideak** eskatu ahalko ditu. Inolaz ere ez da onartuko lizitatzaileek, argibideak aurkeztuz, eskaintzan adierazitako baldintzak aldatzea.

16. ESKAINTZAREN EBALUAZIOA

Kontratazio-mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu beharrezkoak diren saioetan:

16.1.- Eskaintza agiri honen 15.2 klausulan ezarritako baztertzeko kausaren batean dagoen egiaztatuko du, eta, hala badagokio, atzera botatzeko erabakia hartuko du.

16.2.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu, sailkatuko ditu eta eskaintzarik onena zein den zehaztuko du, haietariko bakoitzak adjudikazio-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuta.

16.3.- Egiaztatuko du puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintzak Karatulako 9.2 apartatuan ezarritako mugak gainditzen dituen, eta muga horiek gainditzen baditu, SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusitako jarduketak gauzatuko ditu. Kontratazio-mahaiak zehaztuko du entzunaldi-epea, eskaintzaren ezaugarriak kontuan hartuta; epe hori ezin izango da izan bost egun baliodunetik gorakoa (5), jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Prozedura hori amaitutakoan, eskaintza onartzea edo baztertzea (bete ezin dela irizten badio) erabakiko du.

16.4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazionalean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko nahikoa ahalmen duela eta kontratatzeko debekurik ez duela. Lizitatzaileak erregistro-eskaera aurkeztu badu, mahaiak errekerimendua egingo dio, zerrendatutako alderdiak dokumentazioaren bidez justifika ditzan.

16.5.- Puntuazio onena duen lizitatzaileari eskatuko dio, komunikazio elektronikoaren bidez, zazpi egun balioduneko epean (7), beste erakunde batzuen gaitasun teknikoetara jotzen badu, beharrezko baliabideak izango dituela froga dezan, idatzizko konpromisoa aurkeztuz.

16.6.- Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira.

17. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Irizpide sozial hauek —eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den unekoak— aplikatuz ebatziko da, hurrenkera honetan:

a) Plantillan desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdintasuna izatekotan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen kopuru handiena duena.
b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duena, eta berdintasun kasuetan plantillan emakume langile finko gehien izatea lehenetsiko da.
d) Enpresan euskara-plana ezarrita izatea.
e) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Lizitatzaileek irizpideok egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio, lan-kontratu egokiak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioen dokumentuak eta zuzenbidean onartutako bestelako dokumentuak ere aurkeztuz.

III. ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

18.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA

Kontratazio-mahaiak puntuen arabera sailkatuko ditu eskaintzak, puntu gehien eskuratu duenetik puntu gutxien duenera, eta sailkapen horren arabera igorriko dio adjudikazio-proposamena kontratazio-organoari.

19.- ADJUDIKATU AURREKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

19.1.- Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, komunikazioa bidaltzen zaionetik hamar egun balioduneko epean (10):

a) **Jarduteko gaitasuna.** Espainiako lizitatzaileek, eskritura edo eraketa-agiri, estatutu edo sortze-akta bidez. Espainiarrak ez diren EEEko estatu kideetako lizitatzaileek jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, kontsulta egingo dute baimendutako operadore ekonomikoen zerrenda ofizialean. Atzerriko gainerako lizitatzaileek SPKLren 84.3 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek Erregistroko letradu arduradunak emandako indarreko inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dute, aurreko paragrafoan eskatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, agirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adierazteko.

b) **Ahalordea.**

c) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.** Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:
- Merkataritza Erregistroan onartu eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuaren bidez egiaztatuko dute beren urteko negozio-bolumena.
- Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzailearen negozio-bolumena adieraziz.

d) **Kaudimen teknikoa edo profesionala.** Karatularen 7.3 apartatuan aipatutakoaz gain, azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lanen zerrenda baten bidez egiaztatuko da. Zerrenda horretan, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adieraziko dira. Aipatutako zerbitzuak edo egindako lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea publikoa izan bada; eta ziurtagiriaren bidez edo lizitatzailearen adierazpen baten bidez, prestazio hori egiaztatzen duten dokumentuekin batera, hartzailea pribatua izan bada.

e) **Giza baliabideak.** Konprometitutako giza baliabideen identifikazio nominala, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten curriculum vitae-en fitxekin batera.[3]

[3] Estatuko eta Europar Batasuneko arautegi aplikagarrian datu pertsonalen babesaren arloan ezarritakoarekin bat etorriz, eta aipatutako giza baliabideei buruzko dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasotzen da: (i) datu horiek bildu eta erabiltzeak esan nahi du lizitatzaile horrek tratamendu-arduradun gisa datu pertsonalen tratamendua egingo duela; eta (ii) erakunde kontratatzaileari ematea, aurreikusitakoa betez, erakunde horrek lagatzaile gisa egindako datu pertsonalen jakinarazpena izango dela.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak bete egin beharko ditu aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduari eta komunikazioari dagokionez datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araudi nazionalak eta Europar Batasunak berarentzat xedatutako betebeharrak. Bereziki, eta tratamenduaren arduraduna den aldetik bete beharreko beste edozein betebeharri kalterik egin gabe, hautatutako lizitatzaileak bermatu beharko du, bere erantzukizun esklusiboaren pean, datu pertsonalen komunikazio horri buruzko zilegitasun- eta informazio-eskakizunak betetzen dituela, eta hori behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

f) Legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, **interes-gatazkarik ez dagoela** adierazten duena, V. ERANSKINA ereduaren arabera.
g) **Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea.** Bi kasuetan ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duten agiriak.
h) **Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak** emandako ziurtagiriaren kopia, kontu-auditoretzaren jardueran aritzeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoela egiaztatzen duena.

Jasotako dokumentuak zuzentzeko hiru (3) egun balioduneko epea emango da, errekerimendua jasotzen denetik zenbatzen hasita.

19.2.- Adierazitakoa betetzen ez bada, honako jarduketa hauek gauzatuko dira:

a) Lizitatzaileari lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZik gabe) % 3ko zenbatekoa eskatzea, zigor gisa.
b) Hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera biltzea, sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, dokumentazio hori zazpi (7) egun balioduneko epean aurkez dezan.

20. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA

20.1.– Dokumentazio osoa jaso eta hamar (10) egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organoak. Lizitazio bat ezin izango da esleitu gabe utzi, agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat dagoenean.

20.2.- Adjudikazioa arrazoitu egin beharko da. Adjudikazioaren ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eskaintzaren alderdien balorazio-txostenarekin batera. Txosten hori kontratatzailearen profilean argitaratuko da hamabost (15) eguneko epean. Apartatu honetan aipatzen diren jakinarazpenean eta publizitatean beharrezko informazioa jasoko da, esleipen-prozeduran interesa duten pertsonek esleipen-erabakiaren aurka errekurtsoa jartzeko aukera izan dezaten, eta, bereziki, SPKLren 151.2 artikuluak eskatzen duena.

20.3.- Adjudikazioaren jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da.

21. KONTRATUA FORMALIZATZEA

21.1.- Kontratua SPKLren 153. artikuluak xedatzen dituen baldintza eta epeetan formalizatuko da, eta aurretiaz honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, errekerimendua jasotzen den unetik hasi eta bost (5) egun balioduneko epean:

a) ABEEa eratzeko eskritura publikoa, adjudikaziodunek ABEE batean elkartuta parte hartu badute.
b) Aseguru-kontratuen polizak, hala eskatu denean.

21.2.- Kontratua idatziz formalizatuz gauzatzen da, lizitatzaileek adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo HAMABOST (15) egun balioduneko epean gehienez ere, eta klausuletan besterik adierazten ez bada, kontratazio-organoaren egoitza dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

Kontratua eskritura publikoan formalizatu ahal izango da, kontratistak hala eskatzen badu, eta kontratua egilestearen ondoriozko gastuak bere kontura izango dira. Kasu horretan, kontratistak agiri horren kopia legitimatu bat eta kopia sinple bat eman beharko dizkio ZINEUSKADIri, hura formalizatzen denetik gehienez hilabeteko epean.

21.3.- Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatu ezin denean kontratua suntsiarazi egingo da, eta eragindako kalte-galerak ZINEUSKADIri ordainduko zaizkio.

ZINEUSKADI

IV. KONTRATUA BETEARAZTEA

22. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Kontratuaren jarraipen- eta gauzatze-funtzio arruntei kalterik egin gabe, lanak gainbegiratzea eta ikuskatzea kontratuaren arduradunari dagokio, eta honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Idatziz ematea prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak.
b) AKPAren 33.1 klausulak ezartzen dituen zerbitzuak onartzea.
c) AKPAren 33.2 klausulan adierazitakoak, prestazioa behar bezala gauzatu dela eta jaso dela egiaztatzeari dagokionez.
d) Kontratuaren arabera kontratistak bere gain hartu dituen betebeharrak gainbegiratzea eta bete egin dituela egiaztatzea, kontratazio-organoari jakinaraztea zerbait bete ez dela eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko edo zigorrak ezartzeko proposamena egitea.
e) AKPAren 24. klausularen arabera kontratuaren betearazpenari adskribatu zizkion giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.
f) Egin behar diren aldaketak proposatzea.
g) Errekerimendua egitea kontratistari, kontratuaren betearazpenari adskribatutako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eman ditzan.
h) Kontratistari agiri osagarriak aurkezteko errekerimendua egitea, kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipen-prozeduran parte hartzeko erabili zituen baliabideak badituela egiaztatzeko, baita azpikontratistei ordaindu diela egiaztatzeko ere.
i) Kontratuaren betearazpenean berandutuz gero, txostena egitea sortutako atzerapena kontratistari leporatu ahal zaion zehazteko.
j) AKPAren 25. eta 27. klausuletan lagapenari eta aldaketari buruz aurreikusten diren txostenak egitea.
k) Errekerimendua egitea kontratistari, akta bidez ziurta dezan kontratua betearazten amaitu ondoren datu pertsonalak zeuzkaten euskarri guztiak itzuli dituela edo datu pertsonalak zeuzkaten fitxategi guztiak suntsitu dituela.

23. ZERBITZUAK EMATEA

23.1. Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea

Kontratua gauzatzeko honako hauek bete beharko dira: bertako klausuletan ezarritakoa, agiri honetan ezarritakoa, karatulan ezarritakoa, preskripzio teknikoen agirian ezarritakoa, proposamen esleipendunean ezarritakoa, eta kontratuaren arduradunak kontratistari idatziz emandako jarraibideak haiek interpretatzeko.

23.2. Lizentziak

Kontratistak eskuratu behar ditu prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia publiko nahiz pribatu guztiak, baita sortzen diren gastuak ordaindu ere.

23.3. Kontratistaren erantzukizuna kalte-galerengatik

Kontratistak nahitaez kontratatu eta kontratatuta eduki behar ditu kontratuari dagozkion lanak egiteko behar diren aseguruak.

23.4 Lankidetza

Kontratistak inolako kostu gehigarririk gabe eman behar dizkio ahalorde esleitzaileari kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak; adibidez:

azalpen-bileretara joatea, jendeari informazioa ematea... Era berean, prestazioa zein lekutan ematen den, horietarako sarbide librea eman beharko dio kontratuaren arduradunari.

23.5 Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, baita kontratua gauzatzean omisio, errakuntza, metodo desegoki edo ondorio okerrek ahalorde esleitzaileari edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioen erantzulea ere.

Kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak eraginez gero, kontratistak kalte-ordaina eman beharko du, SPKLren 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

24. BETEARAZTEARI ADSKRIBATU BEHARREKO BALIABIDEAK

24.1. Baliabideak adskribatzeko konpromisoa

Kontratista behartuta dago baliabideak adskribatzeko konpromisoan adierazitako baliabideak, halakorik egonez gero, kontratuaren betearazpenari adskribatzera (II.2 ERANSKINA), eta horrez gain, kontratuaren betearazpena kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintza eta epeen arabera egiteko behar diren baliabideak ere adskribatu beharko ditu.

Adierazitako baliabide materialak ordeztu nahi badira, ezinbestekoa izango da aldez aurretik kontratuaren arduradunari jakinaraztea. Hark ziurtatuko du, emandako ziurtagirien bitartez, proposatutako baliabideak nahitaezko betekizunak betetzen dituela, eta zazpi (7) egun balioduneko epea izango du baimena jakinarazteko. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Giza baliabideak ordeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da klausula honetan ezarritakoa betetzea. Nolanahi ere, ordezpen horren ondorioz eragozpenen bat sortuko balitz lan-ingurunera egokitzeko, ordeztu behar den kideak eta ordezkoak batera jardun beharko lukete, kostu gehigarririk gabe, beharrezkoa den denbora guztian.

Prozedura eta baldintza hauen arabera ordeztu ahal izango da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla-eta ordezpenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari. Hamabost (15) egun baliodun lehenago jakinarazi beharko du —arrazoia ez bada aldi baterako lanerako ezintasuna edo heriotza—, eta datu hauek adierazi beharko ditu:

   - Ordeztu nahi den pertsona nor den eta zergatik ordeztu nahi den.
   - Ordezko izateko hautagaiaren proposamena, ordezko izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztuta.

   Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu ahal izango du.

b) Ahalorde esleitzaileak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala betearazteko ordezpenen bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak adierazita. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, betekizunak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hori ziurtatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan aipatu diren baldintzei jarraituz.

24.2.- Langileei buruzko arau zehatzak

Zerbitzuaren prestazioari adskribatutako langileak kontratistaren mende bakarrik egongo dira eta harenak izango dira enplegatzaileei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, kontratistak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

a) Kontratuaren betearazpenari adskribatu behar dizkion langileak hautatzea. Hala ere, ahalorde esleitzaileak ahalmena izango du baldintza-agirietan, hala badagokio, ezarri diren prestakuntza profesionalaren betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.
b) Langileen egonkortasuna mantentzea eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arrazoituak izatea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (exijentzia hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago); aldaketarik egonez gero, horren berri emango dio uneoro ahalorde esleitzaileari.
c) Enplegatzaile ororen berezko zuzendaritza ahalmena modu errealean, efektiboan eta jarraituan baliatzea kontratuaren betearazpenari adskribatutako langileen gainean. Bereziki, zeregin hauek bere gain hartu beharko ditu: soldatak negoziatu eta ordaindu; baimenak, lizentziak eta oporrak eman; langileak ordeztu, absentziak daudenean; Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak bete —dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne—; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete; diziplina-ahala erabili, eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak bete.
d) Atxikitako langileek, jarduera garatu bitartean, baldintza-agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagozkion eginkizunak besterik ez dituztela betetzen bermatzea.
e) Bere plantillako pertsona bat gutxienez koordinatzaile izendatzea, honako zeregin hauek betetzeko:
    - Kontratistaren mintzakide gisa jardutea ahalorde esleitzailearen aurrean, komunikazioa bideratuz, batetik, kontratistaren eta kontratuari adskribatutako langileen, eta, bestetik, ahalorde esleitzailearen artean, kontratua betearaztetik eratorritako auzi guztietan.
    - Lana langileen artean banatzea eta langileei lanerako agindu eta jarraibideak ematea prestazioa behar bezala emateko.
    - Langileek aginduta dauzkaten eginkizunak behar bezala egiten dituztela gainbegiratzea eta lanpostuan daudela kontrolatzea.
    - Oporren araubidea antolatzea.
f) Ahalorde esleitzaileari jakinaraztea kontratuaren betearazpenari adskribatutako lantaldean sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak zein iraunkorrak izan.

24.3.- Lan-baldintzei buruzko informazioa.

Hurrengo apartatuetan azaltzen diren datu eta dokumentuak eman behar dizkio kontratistak kontratuaren arduradunari, kasu bakoitzean adierazten diren epe eta baldintzetan:

a) Kontratuaren betearazpenari adskribatutako langile guztien lan-baldintzei buruzko datuak: posta elektronikoz aurkeztuko dira; horretarako, zazpi (7) egun balioduneko epea izango dute, dagokion errekerimendua jasotzen denetik aurrera.
b) Kontratuaren arduradunak eskatzen dituen dokumentuak, emandako datuak benetakoak direla eta kontratistak enplegatzaile gisa bere gain hartutako lan arloko betebeharrak bete dituela egiaztatzeko: posta elektronikoz aurkeztuko dira, eskaneatutako kopiekin, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen den egunetik aurrera.

Kontratuaren arduradunak kontratuaren indarraldiko edozein unetan eskatu ahal izango du informazio hori, eta, bereziki, SPKLren 130. artikuluan xedatuta dagoenaren ondorioetarako.

24.4.- Kontratua betearazteko lekua.

Ahalorde esleitzaile kontratatzailearenak berarenak ez diren bulego edo instalazioetan emango da prestazioa. Hori ezinezkoa bada, plantillen nahasketa saiheste aldera, kontratistaren langileek ez dituzte espazioak eta lantokiak partekatuko ahalorde esleitzailearen zerbitzuko langileekin, inguruabar zehatzek aukera ematen badute; gainera, behar diren ikur bereizgarriekin identifikatuko dira kontratistaren langileak eta baliabideak, esate baterako uniformeak edo errotulazioak erabilita.

24.5.- Kaltegabetasun-araua

Kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik ahalorde esleitzailea kontratistarekin batera solidarioki diru kopururen bat ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari kobratuko zaio ordaindutako zenbatekoa, egokiak diren legezko ekintzen bitartez.

24.6.- Langileen subrogazioa

Lan araudiaren arabera langileak subrogatu behar badira, ordura arte zerbitzua ematen zuen kontratista ez den beste operadore ekonomiko bati adjudikatzen zaionean kontratua, kontratistak ordaindu beharko ditu subrogazioaren mendean dauden langileei ordaindu ez zaizkien soldatak, baita sortu diren Gizarte Segurantzaren kotizazioak ere, kontratua suntsiarazten bada ere. Betebehar hori inola ere ez da kontratista berriarena izango.

25. KONTRATUA ALDATZEA

25.1.- SPKLren 205.2 artikuluan ezarritako kasuren bat edo batzuk gertatzen direla behar bezala justifikatzen denean bakarrik sartu ahal izango dira Agirian aurreikusi gabeko aldaketak, eta aldaketa horiek beharrezkoak egiten dituen arrazoi objektiboari erantzuteko behar-beharrezkoak diren aldaketak besterik ez direnean.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren jomuga lortzea helburu dutenak.

25.2.- SPKLren 205. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, kontratua aldatu aurretik, kasu horietan entzun egin beharko zaio espezifikazio teknikoak idatzi dituen pertsonari —baldin eta espezifikazio horiek kontratazio-organotik kanpoko beste pertsona batek prestatu baditu zerbitzuak emateko kontratu baten arabera—, gutxienez hiru egun naturaleko epean egoki iritzitako kontsiderazioak egin ditzan.

Kontratuaren aldaketek ezin izango dute ekarri kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berririk ezartzea.

26. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, SPKLren 215. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari azpikontratatzeko asmoa duela, azpikontratatuko den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria adieraziz, eta, halaber, justifikatu beharko du azpikontratistak gaitasuna duela zerbitzuak lizitazioan jasotako baldintzetan gauzatzeko.

Baldin eta kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zatiren bat, bere gain hartuko du ahalorde esleitzailearen aurrean kontratua betearaztearen erantzukizun osoa, baldintza-agiri honetan eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoarekin bat etorrita, gizarte- edo lan-betebeharrak betetzea barne hartuta.

27. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluan aurreikusita dauden kontratistaren ondorengotzako kasuei eta SPKLren 69.9 artikuluan aurreikusita dagoen ABEEaren osaeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, honako kasu hauetan laga ahal izango da kontratua:

a) Kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikuluaren arabera, eta oraindik ez badu konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta, betiere, ez badute kaudimengabetzat jo beste prozedura batean.
b) Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi zaion negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.
c) Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

Lagapenak SPKLren 214.2 artikuluan eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu.

28. BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziei dagokienez, karatularen 20. apartatuan jasotakoak izango dira.

29. KONTRATU-BETEBEHARRAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ZIGORRAK

Kontratistari legez dagozkion akatsak eta balio-kalteengatiko kalte-ordainak konpontzeko betebeharrari kalterik egin gabe, eta SPKLn edo AKPAren 36. klausulan aurreikusitako kontratua suntsiarazteko aukerari kalterik egin gabe, kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratistari honako arrazoi hauengatik:

Zigorrak betetze akastunagatik
Hornitutako ekipoak funtzionala izateari uzten badio edo baldintza-agirietan eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, edo esleipen-proposamenean eskainitako ekipoak hobeak badira, esleipen-prezioaren % 10eko zigorra aplikatuko da. Egoera hori kontratazio-organoak arrazoizko epe batean konpontzen ez badu, esleipendunak sinatutako behin betiko bermea gauzatuko da.

Berandutzeagatiko zigorrak
Kontratista behartuta dago kontratua betetzeko ezarritako guztizko epearen barruan betetzera, baita kontratua ondoz ondo gauzatzeko ezarritako epe partzialen barruan ere. Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, guztizko epea betetzean berandutu bada, ZINEUSKADIk bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo egun bakoitzeko zigorrak ezartzea (kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko proportzioan).

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, ZINEUSKADIk ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

Horrez gain, kontratua gauzatzen den bitartean bertan parte hartzen ari diren langileei soldatak ordaintzen ez bazaizkie, edo atzerapenak gertatzen badira edo hitzarmen kolektibotik eratorritako soldata-baldintzak baino txikiagoak aplikatzen bazaizkie, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, ordaindu gabeko edo atzeratutako soldaten bikoitza izango da aplikatu beharreko zigorra, langileei behar bezala ordaintzeko betebeharrari kalterik egin gabe.

Kasu guztietan, aipatutako zigorrak egiaztatutako kalte-galerei gehitzen zaizkie.

29.1.- Prozedura.
Zigorrak ezartzea kontratazio-organoaren ebazpen bidez erabakiko da, eta hori erabakitzeko prozedurak honako jarduketa hauek biltzen ditu:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena; bertan, hautemandako ez-betetzeak identifikatuko dira eta zigorraren zenbatekoa proposatuko da.
b) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia egitea, egoki iritzitako alegazioak egin ditzan.
c) Kontratazio-organoaren ebazpena.
d) Zenbatekoak biltzea, ordainketa oso edo partzial gisa kontratistari ordaindu behar zaizkion kopuruetatik edo, hala badagokio, eratutako bermetik kenduz, baldin eta ordainketa horietatik kendu ezin badira.

V. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. LAN-ARLOKO, GIZARTE-SEGURANTZAKO ETA LANEKO OSASUNEKO BETEBEHARRAK

Kontratistak lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, eta bereziki:

30.1.- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean, kontratistak lan-ordenantzaren eta dagokion hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

30.2.- Kontratistak laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu, langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko.

30.3.- Halaber, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak beteko ditu, eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, honako betebehar hauek betetzen dituela frogatu beharko du:

a) Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezarri.
b) Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartu zuen Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako lan-arriskuen prebentzio-plan bat ezarriz eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete den.
c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatu.
d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen V. kapituluan ezarritako kontsulta eta partaidetza nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak eduki.
e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren ala ez kontrolatzeko prozedura eduki eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartu.
f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda eduki.
g) Kontratuaren betearazpenean parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatu, baita bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso dutela ere (azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak),

lan-arriskuen prebentzio-planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman dela.

h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak ——beharrezkoak balira— eman izanaren egiaztagiria eduki.
i) Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak eman, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.
j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatu, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

30.4.- Azpikontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta kontratazioa egin duen ahalorde esleitzaileari eman.

30.5.- Langileak lanean dabiltzala hauek istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, indarreko arauek xedatutakoa bete behar du kontratistak; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez ahalorde esleitzaileak.

31. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

31.1.- Konfidentzialtasuna

Kontratua betetzearen ondorioz kontratistak, kontratua betearazteari kontratistak atxikitako pertsonek eta, hala badagokio, azpikontratistek eskuratuko duten informazio guztia konfidentziala izango da, eta sekretu profesionalaren pean egongo da, aplika dakiokeen araudiaren arabera. Hori dela eta, ondo gorde beharko dira eta sekretupean zaindu, eta inola ere ez jakinarazi, ez zatika ez guztiz, kontratuaren parte ez diren pertsona fisiko edo juridikoei, kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik baimenik eman ez badu.

Aipatutako pertsona fisiko edo juridikoren batek konfidentzialtasun-eginbehar hori eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren eginbeharra urratuz gero, aplika dakiokeen araudiaren arabera, dagozkion erantzukizunak eta kalte-galeren ordainketa eskatuko zaizkio. Kontratu-harremana eten ondoren ere bete beharko dira eginbehar horiek.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horietarako irispidea izatea, eta sekretupean gorde beharko dira jakin ahal diren datuak.

Konfidentzialtasun-betebeharrak 5 urteko epea izango du, kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren berri izaten duenetik zenbatzen hasita.

31.2. Datu pertsonalen tratamendua

Lizitatzaile bakoitzak erakunde kontratatzaileari lizitazio honen esparruan ematen dizkion ordezkariei, enplegatuei eta/edo hirugarrenei buruzko datu pertsonalak, baita kontratistak kontratua formalizatzeko eta/edo gauzatzeko ematen dituen beste datu batzuk ere, Tratamendu Arduradun gisa tratatuko ditu erakunde kontratatzaileak, aipatutako kontratazio-prozesua kudeatzeko eta bi alderdien artean kontratua formalizatu eta gauzatzeko. Hori guztia kontratazio publikoaren arloan ezarritako legezko betebeharren oinarri juridikoaren gainean (SPKL eta araudi osagarria eta/edo lotutakoa).

Aipatutako datu pertsonalak entitate, erakunde publiko eta/edo hirugarrenei jakinaraziko zaizkie, erakunde kontratatzaileak bete behar dituen legezko betebeharrak betez (gardentasunaren arloan aplikagarriak diren betebeharrak barne, hala badagokio).

Testuinguru horretan, jasota geratzen da datu pertsonal horiek ematea eta entitateei, organismo publikoei eta/edo hirugarrenei jakinaraztea, hala dagokionean, beharrezkoak dela; beraz, datu horiek

eman ezean eta/edo aipatutako jakinarazpena egin ezean, lizitatzaileek ezin izango lukete kontratazio-prozeduran parte hartu, ezta dagokion kontratua formalizatu eta gauzatu ere.

Hautatuak izan ez diren lizitatzaileek emandako datuak kontratazio-prozedura behar bezala kudeatzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko dira, eta erakunde horrek bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar duen kontserbazio-epe osagarrian. Kontratistak emandako datuak kontratua egikaritzea behar bezala kudeatzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko dira, eta erakunde horrek bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar duen kontserbazio-epe osagarrian.

Erakunde kontratatzaileak helbide elektroniko bat ezarri du Datuen babeserako; hortaz, interesdunek helbide honetara jo dezakete: info@zineuskadi.eu.

Nolanahi ere, ematen diren datuen jabe diren interesdunek eskubidea dute (i) beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, baita datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko ere, edo, hala badagokio, datuen tratamenduari aurka egiteko, info@zineuskadi.eu helbidera bidalitako eskaera idatziaren bidez, eta (ii) erreklamazioa aurkezteko Kontrol Agintaritza eskudunaren aurrean, bereziki beren eskubideak egikaritzean ez badute lortu.

32. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INTELEKTUALAREN ETA/EDO INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK

32.1.- Lanen jabetza.

Egindako lanak (fase guztietakoak) ahalorde esleitzailearen jabetzakoak izango dira. Hala bada, botere horrek noiznahi eskatu ahal izango du prestazioen zati bat emateko, baldin eta behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak eragozten ez badira.

Halaber, kontratistak eskatu dezake prestazioaren aldez aurreko harrera egiteko, eta ahalorde esleitzaileak erabakiko du harrera hori onartu ala ez.

32.2.- Jabetza industriala eta intelektuala

Kontratista behartuta egongo da baimendutako iturrietatik eta bere kontura bakarrik edozein lizentzia eta erabilera- eta/edo ustiapen-eskubide lortzera ekipo informatikoetan edo beste edozein ekipo eta/edo bitarteko osagarritan, baldin eta, agiri honetan ezarritakoaren arabera, haren xede diren zerbitzuak emateko atxiki, ekarri eta/edo mantendu behar baditu.

Era berean, kontratazio honi erabat aplikatuko zaio SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa. Hori horrela izanik, kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzearen emaitza ororen gaineko jabetza — erakunde kontratatzailearentzat sortu, asmatu, diseinatu edo garatu bada eta jabetza intelektual eta/edo industrialeko eskubideen bidez babestu badaiteke— erakunde kontratatzailearena izango da, oso-osorik edo edozein fasetan. Hori guztia, jabetza intelektualaren legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo Patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera, kontratistari dagozkion egile-eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa onartua izateko eskubidea alde batera utzi gabe. Erakunde kontratatzaileak behar bezala bete beharko ditu eskubide horiek.

Administrazio-klausula partikularretan eta preskripzio teknikoen klausuletan berariaz ezartzen denari kalterik egin gabe, kontratistak ziurtatu egin beharko dio erakunde kontratatzaileari kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza modu baketsuan erabiliko duela; hala badagokio, kontratuaren parte den edozein elementuren gaineko lizentziak eta eskubideak legitimoki eta baimendutako iturrietatik lortzera behartuko du bere burua, eta entregatzeko unean adieraziko du emaitza horren gainean ez dagoela inolako konpromiso edo kargarik kontratazio honen ondorioz erakunde kontratatzaileari dagozkion eskubideen aurka egiteko.

Nolanahi ere, kontratista izango da kontratutik kanpoko hirugarrenek jabetza intelektualari eta/edo industrialari buruz egin ditzaketen erreklamazioen erantzule, honako alderdi hauei dagokienez:

- Zerbitzuak ematean, jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideen bidez babestuta dauden materialak, tresnak eta gainerako erremintak erabiltzea.
- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, kontratistak erakunde kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio kontzeptu horiei buruzko erreklamazioen ondorioz erakunde horri sor dakizkiokeen kalte eta galera guztiengatik.

Hala badagokio, aipatutako guztitik ondorioztatzen den ordainsaria administrazio-klausula partikularren 4. klausulan eta preskripzio teknikoen klausuletan ezarritako kontratuaren prezioan sartuta dagoela ulertuko da.

VI. KONTRATUA AZKENTZEA

33.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARRERA EGITEA ETA LIKIDATZEA

33.1- Entregatzea eta dena behar bezala bete den egiaztatzea

Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak entregatzeko, PTAren I. ERANSKINEAN eta Karatulako 21. apartatuan ezarritako zehaztapenak bete beharko dira.

Harrera partzial bakoitzean, hala badagokio, eta harrera osoa dela eta, erakunde kontratatzaileak erabakiko du ea kontratistak egindako prestazioa bat datorren hura gauzatzeko eta betetzeko ezarritako aginduekin, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egiteko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko du.

Entrega-datatik aurrera zenbatuta hamabost (15) egun balioduneko epean gehienez ere, kontratuaren arduradunak bidezkoa dena egiaztatuko du, itundutako baldintzak behar bezala bete direla ziurtatzeko.

Baldintzak bete ez direla ondorioztatzen badu, ikusitako ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatzen dituen txostena egingo du eta haiek konpontzeko jarraibideak emango ditu. Txostena kontratistari igorriko dio. Bertan, ikusitakoa zein epetan konpondu behar den zehaztuko du, eta azalduko dio bost (5) egun balioduneko epea duela idatzizko erreklamazioa aurkezteko txostenaren ondorioen aurka.

Emandako bigarren epean kontratistak akatsa zuzentzen ez badu, kontratua suntsiaraziko da, eta kontratistak eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio ahalorde esleitzaileari.

33.2.- Harrera egitea

Betiere, harrera egiten den arte, itundutako baldintzak behar bezala betetzeaz arduratuko da kontratista.

Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu itundutako baldintzak behar bezala bete direla, kontratuaren harrera egingo da.

33.3.- Likidazioa

Harrera egin ondoren, eta enpresa kontratistak faktura aurkeztu ondoren, hogeita hamar (30) egun izango dira faktura ordaintzeko.

Ordaintzen berandutuz gero, kontratistak eskubidea izango du abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako berandutze-interesak jasotzeko (3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena).

34. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, berariaz ezartzen da hori aplikatu behar dela.

35. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua azkenduko da kontratua bera betetzen denean edo suntsiarazten denean.

36. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak izango dira suntsiarazteko arrazoiak.

Kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik kontratua suntsiarazten bada, kontratuaren urteko prezioaren % 20 ordainduko zaio erakunde kontratatzaileari, BEZik gabe. Zigor hori egiaztatutako kalte-galerei gehituko zaie.

VII. JURISDIKZIO ESKUDUNA

37. GORABEHERAK. KONTRATAZIO-ORGANOAREN PRERROGATIBAK

Administrazio-kontratuak interpretatzeari, betetzearen inguruko zalantzei, aldaketak egiteari, kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna deklaratzeari, betearaztea eteteari, suntsiarazteari eta suntsiaraztearen ondorioei buruz gertatzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio hari hilabete bateko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi (2) hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita

38. JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du kontratuak prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruzko auziak ebazteko eskumena, azken horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen denean.

Hala badagokio, errekurtsoa jarriko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta amaierari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena, klausula honen lehenengo paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketen kasuan izan ezik.

Kontratuari buruzko auzirik egonez gero, Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira alderdiak.

ZINEUSKADI

ZINEUSKADI

ERANSKINAK

LABURPEN-KOADROA

A PRESENTAR EN OFERTA

I. **«A» GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK**

☒	II.0. ERANSKINA	DATU PERTSONALAK
☒	II.1. ERANSKINA	EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)
☒	II.2. ERANSKINA	BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA
☒	II.3. ERANSKINA	ESKAINTZAN BILDUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA
☒	II.4. ERANSKINA	ABEEa FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA
☒	II.5. ERANSKINA	KONTRATUAREN XEDE DEN JARDUERA EGINGO DUTEN PERTSONEI DAGOKIENEZ HARTUTAKO KONPROMISOEN DEKLARAZIOA
☒	II.6. ERANSKINA	ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK

II. **«B» GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK**

☒	EZ DAGO ERANSKINEN MENDE	MEMORIA TEKNIKOA

III. **«C» GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK**

☒	III. ERANSKINA	ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA BESTE IRIZPIDE AUTOMATIKO BATZUK

IV. **ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKOA**

☒	V.1. ERANSKINA	KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK ESKURA IZATEA
☒	V.3. ERANSKINA	BANKU-ABALAREN EREDUA. ABEEentzako BANKU-ABALAREN EREDUA.
☒	V.4. ERANSKINA	KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA. ABEEentzako KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA.
☒	V.5. ERANSKINA	INTERES GATAZKARIK EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA)

V. **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.**

VI.

☒	IV.1. ERANSKINA.	DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

VII. ADJUDIKAZIODUNAK FORMALIZATU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKOA

☒	IV.2 ERANSKINA.	DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ENKARGUA

II..0 ERANSKINA.- DATU PERTSONALAK

[4]Nik, ... jaunak/andreak (NAN: .....), nire izenean edo ..... [*operadore ekonomikoa*] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ: .....) [*operadore ekonomikoa*],

..... espediente zenbakia duen kontratuaren adjudikazio-prozedurari dagokionez

HAU DEKLARATZEN DUT:

1.- Ni, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatu dudan hau, naizela eskaintza aurkezten duen pertsona, entitate edo enpresaren ordezkaria.

2.- Erantzukizunpeko adierazpen hau aurkeztu dudala, bertan bildutako datu pertsonalak barne, datu pertsonal horiek ez daitezen aldi berean agertu nahitaez aurkeztu eta sinatu behar diren administrazio-klausula partikularren agiriko gainerako ERANSKINETAN. Horrela, bete egingo dira datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak.

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: IV.1. ERANSKINA

II.2. ERANSKINA. GIZA BALIABIDEAK ETA/EDO BALIABIDE MATERIALAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA

[5]Nik, ... jaunak/andreak, nire izenean edo ..... [*operadore ekonomikoa*] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ: .....) [*operadore ekonomikoa*], ... zenbakiko espedientea duen kontratua esleitzeko prozedurari dagokionez,

HAU DEKLARATZEN DUT:

Konpromisoa hartzen dudala kontratua gauzatzeko, kontratuaren esleipendun izanez gero, baldintza partikularren eta preskripzio teknikoen 10. klausulan eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko.

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: IV.1. ERANSKINA

[5] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

II.3. ERANSKINA. ESKAINTZAN BILDUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA (AUKERAZKOA)

[6]Nik, ... jaunak/andreak, nire izenean edo ..... [*operadore ekonomikoa*] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ: .....) [*operadore ekonomikoarena*], ... espediente zenbakiari dagokionez

HAU DEKLARATZEN DUT:

Aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, nire ordezkatuaren izenean, konfidentzialtzat jotzen ditudala eskaintzako honako dokumentu, txosten eta alderdi hauek, sekretu tekniko edo merkataritzakoekin duten loturagatik[7][8]:

1.- .....
2.- .....
3.- .....

Arrazoi hauengatik direla konfidentzialak:

1.- .....
2.- .....
3.- .....

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: IV.1. ERANSKINA

[6] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.
[7] Adierazi elementu konfidentzialak
[8] Ikusi baldintza orokorren 12.3 klausula

II.4. ERANSKINA. ABEEa FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA

Nik, ... jaunak/andreak, nire izenean edo ..... [*operadore ekonomikoa*] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan.

Nik, ... jaunak/andreak, nire izenean edo ..... [*operadore ekonomikoa*] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan.

..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

HAU DEKLARATZEN DUGU:

1.- Konpromisoa hartzen dugula aldi baterako enpresa-elkarte bat formalki eratzeko; hurrenez hurren, hauek izango dira bakoitzaren partaidetzak: % ..... eta % .....

2.- ..... jauna/andrea izendatzen dugula elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, eta ahalorde nahikoak izango dituela kontratuak sorraraziko dituen eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arte.

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: IV.1. ERANSKINA

II.5. ERANSKINA. KONTRATUAREN XEDE DEN JARDUERA EGINGO DUTEN PERTSONEI DAGOKIENEZ HARTUTAKO KONPROMISOEN DEKLARAZIOA

Nik, ... jaunak/andreak[9], nire izenean edo ..... [operadore ekonomikoa] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ: .....) [*operadore ekonomikoarena*], ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

HAU DEKLARATZEN DUT:

1.- Adjudikazioduna baldin banaiz, hau izango dela kontratuaren xede den jardueran jardungo duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa°: .....

2.- Adjudikazioduna baldin banaiz, langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz kontratuaren arduradunak edo kontratazio-organoak eskatzen didan informazio guztia emango dudala kontratua betearazi bitartean.

3.- Adjudikazioduna baldin banaiz, kontratua exekutatu bitartean, hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko diedala langileei, langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera, eta inola ere ez dudala ordainduko soldata hori baino gutxiago.

4.- Neure borondatez onartzen dudala gardentasun instituzionalez jorratzea adjudikazio-prozedurari eta kontratuaren betearazpenari buruzko datu guztiak, harik eta kontratua amaitu arte.

5.- Konpromisoa hartzen dudala kontratua betearaztean zorrotz betetzeko kontratuari adskribatutako langileen inguruan kontratistari dagozkion betebeharrak (baldintza orokorren 26. klausulan daude zehaztuta betebehar horiek).

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: IV.1. ERANSKINA

[9] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

II.6. ERANSKINA. ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK[10]

Nik, ... jaunak/andreak[11], nire izenean edo ..... [*operadore ekonomikoa*] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ: .....) [*operadore ekonomikoarena*], ... zenbakiko espedienteari dagokionez.

HAU DEKLARATZEN DUT:

Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, enpresa-talde bateko kide *[badela]/[ez dela]* ..... ordezkatzen dudan enpresa (*baiezkoa bada, eta taldeko beste enpresaren batek lizitazioan parte hartzen badu, bete hurrengo taula hau*)

Izen soziala	IFZ

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: VII. ERANSKINA

[10] Enpresa-talde bereko beste operadore ekonomikoren batek lizitazio honetarako eskaintzarik aurkeztuko badu bakarrik bete beharko da.

[11] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

III. ERANSKINA. IRIZPIDE AUTOMATIKOEN ESKAINTZA

Nik[12], ... jaunak/andreak, nire izenean edo ..... [*operadore ekonomikoa*] operadore ekonomikoaren ordezkaritzan, (IFZ: .....) [*operadore ekonomikoarena*], ... espedienteari dagokionez.

HAU DEKLARATZEN DUT:

1.- Nire eskaintza prestatzerakoan, kontuan hartu ditudala arlo hauetan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak: fiskalitatea, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko espezifiko bat kontratatzeko betebeharra.

2.- Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak gauzatzeko konpromisoa hartzen dudala, administrazio-klausula partikularren agirian eta preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintzen arabera, eta, hala badagokio, kontratua arautzen duten agiri osagarrien arabera, prezio honetan:

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe)	**Oinarrizko prezioa**	**BEZa (% 21)**	**Prezioa, guztira**
7.405,20 €			

3.- Atxikitako langileak eta haien generoa identifikatzea:

4.- Konpromisoa hartzen dudala 2 prestakuntza-ordu emateko, identifikatutako akatsak eta hauek nola konpondu tratatzen dituen urteko auditoretza amaitu eta gero:

BAI

EZ

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: IV.1. ERANSKINA

[12] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

ZINEUSKADI

IV.1. ERANSKINA. DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak "Kontratazioaren kudeaketa" tratamendu-jardueraren barruan sartuko direla:

1. **Arduraduna:** Zineuskadi elkartea
2. **Helburua:** kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne hartuta, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
3. **Kontserbatzeko epea:** zer helburutarako bildu diren kontuan hartuta, helburu hori betetzeko behar den denbora.
4. **Legitimazioa:** pertsona interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko beharrezko tratamendua, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko ere egiten dena.
5. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
6. **Eskubideak baliatzea:** datu pertsonalak jasotzen dituzten pertsonek honako eskubide hauek dituzte:
   a) **Irispidea:** interesdunak eskubidea dauka bere datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez egiazta diezaion tratamenduaren ardura duen organoak, eta, hala bada, datuok eskuratu ahal izango ditu.
   b) **Zuzentzekoa:** Bere datu pertsonal akatsdunak zuzentzeko eskubidea dauka interesdunak, eta osatu gabe dauden datu pertsonalak osatzekoa, behar bada, adierazpen gehigarri baten bidez.
   c) **Ezeztatzekoa (ahaztua izateko eskubidea):** bere datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea izango du interesdunak baldintza hauetan:
      - Datu pertsonalak jadanik ez direnean beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan;
      - Interesdunak tratamendua egiteko baimena kentzen duenean, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik;
      - Interesdunak tratamendua aurkaratzen duenean, eta ez denean bestelako arrazoi juridikorik gailentzen tratamendurako;
      - Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin denean;
      - Datu pertsonalak ezereztu behar badira, lege-betebehar baten indarrez;
      - Datu pertsonalak jaso badira 2016/679 Erregelamenduaren (EU) 8. artikuluaren 1. apartatuan aipaturiko informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian
      - Datu pertsonaletarako esteka oro ezabatua izateko eskubidea izango du interesdunak, baldin eta datuok ezerezteko betebeharra badago.
   d) **Mugatzea:** bere datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea izango du interesdunak baldintza hauetan:
      - datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egiten denean, tratamenduaren ardura duen organoak datuon zehaztasuna egiaztatzeko adinako epe batez.
      - tratamendua legez kontrakoa denean eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egiten duenean eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatzen duenean;

- organo arduradunak jadanik behar ez dituenean datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko;
- interesdunak tratamenduaren aurka egin duenean, eta tratamenduaren arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunaren arrazoien gainetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

e) Aurka egitea: Interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, tratamenduaren arduradunari galarazteko berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egitea, tratamendua beharrezkoa bada ere interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko edo ahal publikoak erabili edo hirugarrenen interes legitimoa babesteko, baita profilak egiteko ere:

- Tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi larriak daudela edo datuok beharrezkoak direla erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
- Datuen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

f) Baimendutako tratamendua: eskubidea du, gainera, bere datu pertsonalak jaso dituzten pertsonarengan ondorio juridikoak eragiten dituen edo antzeko eragin nabarmena duen tratamendu baimenduan (profilak egitea barne) soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko.

IV.2. ERANSKINA – DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ENKARGUA (sustatzaileak eta kontratistak sinatu beharrekoa)

1.- Egin behar den datu pertsonalen tratamenduari buruzko deskribapen orokorra

Tratamendua honetan datza: *(kontratuaren xedearen eta datu pertsonalen tratamenduaren deskribapen zehatza).*

DBEOren 28.3 artikuluaren arabera, kontratistak adskribatutako langileek, baldintza-agirian ezarritako zerbitzuak emateko, datu pertsonalak tratatu ahal izango dituzte. Adskribatutako langileek bakarrik tratatuko dituzte datu pertsonalak, eta beti kontratatutakoa garatzeko helburu bakarrarekin.

Baldin eta, kontratuaren betearazpenaren ondorioz, ERANSKIN honetan ezarritakoa aldatu behar izango balitz momenturen batean, arrazoiak emanda eskatu beharko du kontratistak, eta zein aldaketa egin nahi duen zehaztu. Elkarte hau ados badago eskatu zaizkion aldaketekin, ERANSKIN eguneratu bat egingo du, eta bertan zehatz bildu beharko da datu pertsonalen inguruan egin behar den tratamendua.

2.- Taldeak eta tratatutako datu pertsonalak

Interesdunen talde hauetarako eta tratatutako datu pertsonal hauetarako irispidea izango du kontratistak:

Tratamenduak eta interesdunen talde nagusiak	**Tratamenduaren datu pertsonal hauetarako irispidea eskuratu ahal izango da**[13]
1. tratamendua:	- NAN/IFZ - Izena eta abizenak - Sexua - Helbidea - Telefonoa - Sinadura - Nazionalitatea, jaioteguna, helbide elektronikoa - Ezaugarri pertsonalak, ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruetakoak - Bestelakoak
2. tratamendua:	- NAN/IFZ - Izena eta abizenak - Sexua - Helbidea - Telefonoa - Sinadura - Nazionalitatea, jaioteguna, helbide elektronikoa - Ezaugarri pertsonalak, ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruetakoak - Bestelakoak

3.-. Datu pertsonalen tratamenduaren elementuak

Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek bilduko ditu:

[13] Zerrenda irekia da, adibide gisa emana. Pertsonei eskatzen zaizkien datu pertsonalak zehaztu behar dira, erabiliko den datu pertsonalen tratamenduaren arabera.

□ Biltzea / Erregistratzea
□ Sailkatzea / Egituratzea
□ Gordetzea / Segurtasun-kopia
□ Aldatzea
□ Ateratzea
□ Kontsultatzea
□ Komunikatzea / Transmititzea
□ Mugatzea
□ Ezabatzea / Ezeztatzea / Ahazteko eskubidea
□ Kopiak suntsitzea
□ Segurtasun-kopiak berreskuratzea

4.- Datu pertsonalekin zer egin kontratua amaitzean

Behin kontratua amaituta, kontratistak (hautatu bat):

a) Tratamenduaren organo arduradunari itzuli behar dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, datu pertsonalak dituzten euskarriak, prestazioa ematen amaitu ostean. Itzultzeaz gain, kontratistak erabiltzen dituen ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu beharko dira. Hala ere, kontratistak kopia bat kontserbatu ahal izango du, datuak behar bezala blokeatuta, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.

   Dena den, aipatu berri den a) aukeraren ordez, jarraian adierazten diren b) edo c) aukeretako bat betetzeko agindu ahal izango dio tratamenduaren organo arduradunak kontratistari. Hona hemen aukera horiek:

b) Tratamenduaren organo arduradunak idatziz izendatuko duen tratamendu-eragileari itzuli behar dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, datu pertsonalak dituzten euskarriak, prestazioa ematen amaitu ostean. Itzultzeaz gain, kontratistak erabiltzen dituen ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu beharko dira. Hala ere, kontratistak kopia bat kontserbatu ahal izango du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.

c) Datu pertsonalak suntsitu behar ditu, prestazioa ematen amaitu ostean. Suntsitu ondoren, kontratistak idatziz ziurtatu beharko du suntsitu egin dituela, eta tratamenduaren organo arduradunari eman beharko dio ziurtagiria. Hala ere, kontratistak kopia bat kontserbatu ahal izango du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.

5.- Segurtasun-neurriak

Tratatutako informazioaren eta emandako zerbitzuen babes egokia bermatuko da. Horretarako, gutxienez, segurtasun ertaineko kategoriari dagozkion segurtasun-neurriak aplikatuko dira, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren arabera. (*hautatu aukera; lehenetsita, ertaina*):

□ Ertaina
□ Handia

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Tratamenduaren arduraduna Kontratista

V. ERANSKINA - INTERES GATAZKARIK EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA)

Nik, ... jaunak/andreak[14], nire izenean edo ..... (*operadore ekonomikoa*) ordezkatuz (IFZ: .....) [*operadore ekonomikoarena*], ... zenbakia duen espedienteari dagokionez, eta goian aipatutako kontratazio-prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera

HAU DEKLARATZEN DUT:

Lehena. Adierazten dut, lizitatutako kontratuei dagokienez, ezagutzen ditudala honako hauek:

1.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irailaren 23ko 2024/2509 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.2 artikuluak ("interes-gatazka") ezartzen du "interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoirengatik".

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikuluaren ("Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa") helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluak ("Abstenitzea") ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla "administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean", zehazki, egoera hauetako batean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren graduraino odolkidetasunezkoa edo bigarren graduraino ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, baita prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
c) Aurreko apartatuan aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izatea, gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena. Adierazten dut:

7. Ez nagoela/gaudela EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez nagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren

[14] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta lizitazio-prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arrazoietako ezeinen mende.

8. Konpromisoa hartzen dudala/dugula kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoi, eta ebaluazio-prozesuan eta prozedura honekin lotutako jarduera guztietan parte hartzeari utziko diodala.

9. Konfidentzialtasunez tratatuko ditudala prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, eta ez dudala desegoki erabiliko prozedura horietan parte hartzeagatik ematen zaidan informazioa.

10. Ezagutzen dudala interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioei, ondorio administratiboei edo judizialei aurre egin beharko diedala.

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa: IV.1. ERANSKINA

ZINEUSKADI